

INCLÚYENOS
GUREKIN BAT

FÚTBOL INCLUSIVO EN ÁLAVA



Arabako Futbol Federazioak, **Vital Fundazioaren** eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin, eta Apdemaren lankidetzarekin, Down Araba-Isabel Orbe elkarteak, Arabako Kirol Egokituaren Federazioak, Arabako Autismo Elkarteak, Kulunkak, Tel Euskadik, Talurrek, Arabarneck, Aspasorrek eta Azirkartek proiektu bat jarri dute abian, futbol inklusiboan aukerak sortu ahal izateko, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa baten bidez, futbolaren ingurunea eraldatzen laguntzeko, erantzukidetasun- eta elkartasun-balioak sustatuz.

Informazioa

Lankidetzeta-proiektua, Arabako lurralde osoari zuzendua, **desgaitasunen bat duten pertsonen kirol horretan duten partaidetza handitzeko, klub konbentzionaletatik eta Arabako gure kuadrilla bakoitzetik.**

Programa horrek aukera ematen dio gizarteari kolektibo horren errealitatea ikusarazteko, gazteenak sentsibilizatzeko pertsona horiek dituzten zailtasunei buruz, eta futboleko eta areto-futboleko taldeetako teknikariek aniztasun funtzionaleko gaietan prestakuntza egin ahal izateko.